

BARNETIK



USTIAPEN PEDAGOGIKOA

Josiane **Aguerre-Valencia**



Ilustrazioak: Hegoa Arregui
Zuzenketak: IKASeko lankideak
Maketazioa: Xabier Elizondo
Argitalpena: Unai Zubeldia
Argitalpen arduraduna: Aines Dufau
Legezko arduraduna: Maite Erdozaintzi-Etxart



Ez ala bai?

Ene buruak dio *ez, ez!*

Zintzoki *ez, ez, ez!*

Ene buruak dio *ez!*

Baina... Baina...

Ene buruak dio *bai, bai!*

Batzu(e)tan *bai, bai, bai!*

Ene buruak dio *bai!*

Ez ala bai? Ez ala bai?

Ez ala bai?

Ez ala bai? Ez ala bai?


Ez ala bai?

EZ ALA BAI?

IKASLE BILAKATZEA

Talde-biziaren arauak ezagutzea eta haiei jarraitzea

- Elkarrekin bizitzeko arauen beharra ulertzea.
- Materiala, lana, ikaskideak errespetatzea.
- Sentitzen dena adieraztea: kolera, gatazka batek eragin tristura...
- Talde-biziaren arauak aplikatzea.
- Gatazka egoera sinple batzuk aztertzea, eta hauen saihesteko edo konpontzeko aterabideak xerkatzea.
- Ikaskideak errespetatzea.
- Talde-biziaren araudiaren idazketan parte hartzea.
- Ikasgela biltzea.
- Jokoak eta materiala partekatzea.
- Eskolako jende heldu guzien funtzioa eta lan-eremua ezagutzea.



Apal mintzatu behar da.



Ez da oihurik egin behar.



Garbiki jan behar da.



Ez da zikinki jan behar.



Prestuki jostatu behar da.



Ez da borrokan ari izan behar.



Prestuki jostatu behar da.




Ez da nehor jo behar.



Puskak bildu behar dira.



Puskak ez dira lurrera
bota behar.




Sendi dena erran behar da.



Ez da mutur egon behar.



Pixa, komunetan egin
behar da.



Pixa ez da galtzetan egin
behar.



Zarta-zarta

Gorputza dut danbolin **

Tresna hau nekaezin **

Jo eskuak ** jo, o, o, o!

Jo eskuak ** izterrak ** jo, o, o, o!

Jo eskuak ** izterrak ** papoa ** jo, o, o, o!

Jo eskuak ** izterrak ** papoa ** matelak ** jo, o, o, o!

Jo eskuak ** izterrak ** papoa ** matelak ** ipurdia ** jo, o, o, o!

ZARTA-ZARTA

GORPUTZ-JARDUEREN BIDEZ ARITZEA, ADIERAZTEA ETA ULERTZEA

Besteekin komunikatzea ekintza adierazkorren eta
artistikoen bidez

- Gorputza baliatuz, musika egin ezazu lerro hauei jarraikiz. (1. fitxa)

